

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA**

Alegría-Dulantziko Udalaren 2026/06/03ko Osoko Bilkuraren Erabakia; horren bidez, behin betiko onartu da lanpostuen zerrendaren aldaketa, musika-hizkuntzako irakaslearen plaza amortizatzeari dagokionez eta garbiketako eta mantentze-lanetako langilearen bi lanpostutan E txartelaren eskakizuna kentzeari dagokionez

Udal honetako lanpostuen zerrendaren aldaketa 2026/06/03an egindako osoko bilkuran onartu zen.

Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginaren 127. artikuluan ezarritakoaren arabera, iragarki honen bidez, aipatutako aldaketa osorik argitaratzen da.

– MUSIKA-HIZKUNTZAKO IRAKASLEAREN PLAZAREN AMORTIZAZIOA

ZEIN ZERBITZUTAKO DEN	
Lanpostuaren izena	MUSIKA-HIZKUNTZAKO IRAKASLEA
Lanpostu bakoitzeko plaza kopurua eta lanpostu mota	1
Izaera juridikoa	langile lan - kontratudun
Zein unitate organikotako kide den	03 arloa: Hezkuntza, Kultura eta Kirola
Funtzionarioen lanpostuetarako lanbide-sailkapeneko taldea, eta lan-kontratudun lanpostuetarako lanbide-taldea	A2
Ordainsari osagarriak: — Lanpostu-mailako osagarria: 20 — Berariazko osagarria: 17.227,11 euro	
Lanbide-sailkapeneko taldea/Lanbide-taldea	A2
Hornitzeko modua	Lehiaketa
Garatu beharreko funtzioak	Musika eskolako irakaslea

– ETXARTELAREN ESKAKIZUNA KENTZEA GARBIKETAKO ETA MANTENTZE-LANETAKO LANGILEAREN BI LANPOSTUTAN

ZEIN ZERBITZUTAKO DEN	
Lanpostuaren izena	GARBIKETAKO ETA MANTENTZE-LANETAKO LANGILEA
Lanpostu bakoitzeko plaza kopurua eta lanpostu mota	2 (4.004 y 4.007)
Izaera juridikoa	langile lan - kontratudun
Zein unitate organikotako kide den	04 arloa: Zerbitzuak
Funtzionarioen lanpostuetarako lanbide-sailkapeneko taldea, eta lan-kontratudun lanpostuetarako lanbide-taldea	AP
Ordainsari osagarriak: — Lanpostu-mailako osagarria: 13 — Berariazko osagarria: 15.312,98 euro	
Lanbide-sailkapeneko taldea/Lanbide-taldea	AP
Hornitzeko modua	Lehiaketa
Garatu beharreko funtzioak	Udalerriko garbiketa eta mantentze-lanak

Udalbatzak hartutako erabakiaren aurka, administrazio-bidea amaitzen baitu, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiketete Udalbatzari, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura

Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluen arabera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluen arabera.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123.2 artikulua ohartarazten duenez, aukerako berraztertze-errekurtsoa jartzea erabakitzen bada, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, harik eta errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo isiltasunez ezetsi arte.

Horrek guztiak ez du esan nahi interesdunak bere eskubideen alde egokiagotzat jotzen duen beste edozein errekurtso jar dezakeenik.

Jende guztiak horren berri izan dezan argitaratzen da.

Alegria-Dulantzi, 2026ko ekainaren 24a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA